Arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

**UDALBATZAK 2014ko APIRILAREN 30ean EGINDAKO OHIKO BATZARREKO AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DIA 30 DE ABRIL DE 2014.**

**BERTARATUTAKO JAUNAK / ANDREAK:**

**SRES/AS. ASISTENTES:**

D. ASIER ALBIZUA MANRIQUE jauna - EAJ-PNV
Dª. BEGOÑA ESTIVALIZ ZARRAGA andrea - EAJ-PNV
D. RICARDO MARTÍNEZ GALÍNDEZ jauna - EAJ-PNV
Dª. MAITE CUSTODIO IGLESIAS andrea – EAJ-PNV
D. ALBERTO DE LA RÚA CASTRO jauna – EAJ-PNV
Dª MIREN AGURTZANE IBARRETXE SALAZAR andrea - EAJ-PNV
D. IGOR ZABALLA HORTALA jauna – BILDU
Dª. JOANA GUERRA LARREA andrea – BILDU
Dª. AIDA UTERGA ORUE andrea - BILDU
D. JAGOBA LAZKANO OLABARRIA jauna - BILDU
Dª. MAITE BARAHONA DÍAZ andrea -PSE-EE (PSOE)
D. JUAN MERCHÁN BERMEJO jauna - PSE-EE (PSOE)
Dª. LEIRE CABADO SÁNCHEZ andrea - PSE-EE (PSOE)
D. JESÚS SEVILLA DE LAS FUENTES jauna - PP
D. JOSÉ LUIS MÉNDEZ GÓMEZ jauna - EB-B

**ETORRI EZ DIRENAK / AUSENTES:**

D. ALBERTO LÓPEZ FELIPE jauna - BILDU
D. IÑAKI RENTERIA GARCÍA jauna – BILDU

NIF: P-4801400-E

**IDAZKARIA / SECRETARIO:**

D. ALVARO LLORENTE CRESPO jauna

**KONTU-HARTZAILEA / INTERVENTOR:**

D. CARLOS VAQUERO MURAS jauna

Arrigorriagan, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita hamarrean, hemeretzi orduak eta hogeita hamar minutu direnean, Arrigorriagako Udalbatza bildu da ohiko batzarrean, lehenengo deialdian.

Asier Albizua Manrique alkate jauna bilkuraren buruak, eta arestian aipatutako zinegotziek eta idazkariak hartu dute parte.

Bilkura irekitzat jo da, eta gai-zerrenda irakurri baino lehen, erabaki hauek adostu dira:

**1.- 2014KO MARTXOAREN 27KO BILKURAKO AKTA ONESTEA, BIDEZKOA BADA.**

Udalbatzak, korporazioak aho batez onartuta, 2014ko martxoaren 27ko bilkuraren akta onestea erabaki du.

➢BILDUko zinegotzi Jagoba Lazkanok adierazi du,

En Arrigorriaga, siendo las diecinueve horas y treinta minutos del día treinta de abril de dos mil catorce, se reúne el Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga en sesión ordinaria, en primera convocatoria.

Preside el acto el Sr. Alcalde D. Asier Albizua Manrique, asistiendo los/las señores/as Concejales y el Secretario que anteriormente se expresan.

Declarado abierto el acto y previa lectura del Orden del Día, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA DE 27 DE MARZO DE 2014.**

El Pleno, por unanimidad de los corporativos asistentes acuerda aprobar el acta de la sesión plenaria de 27 de marzo de 2014.

➢Por parte del Concejal de BILDU, Jagoba Lazkano,

bere taldeak Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legearen inguruan aurkeztutako mozioari dagokionez, atal batean jasota zetorren Udalak akordio horren berri bandoaren bidez emango ziela herritarrei, baita erakunde guztietara –Senatura, Eusko Jaurlaritzara eta abarrera- ere eta galdetu nahi du ea bando hori jarriko den.

se pregunta que con relación a la moción relativa a la Ley de Racionalización y Sostenibilidad presentada su grupo en un apartado se hacía referencia a que el Ayuntamiento informará mediante un bando a los vecinos de la aprobación de dicho acuerdo, así como que se iba a mandar a todas las instituciones, Senado, Gobierno Vasco, etc., preguntándose si dicho bando se va a divulgar.

- Idazkariak erantzun dio egia dela udalbatzak onartutako mozio horren barruan zetorrela bandoaren bidez jakinaraztearena. Baina bandoa argitaratzeko eskumena Alkatetzarena da. Hortaz, ez litzateke behartuta egongo. Zentzu horretan, beraz, mozio ez erabakitzailea litzateke. Izan ere, atal hori eduki zabalagoaren barruan zetorren, onartu ziren beste erabaki batzuen barruan, xedapen-zatian aipatu behar ez zena eta aintzat hartu ez zena.

- Por el Secretario se responde que efectivamente dicha divulgación del bando venía dentro de esa moción que aprobó el pleno, bando cuya publicación es competencia de Alcaldía, entendiendo por tanto que no estaría obligado, por lo que sería una moción no resolutiva en este aspecto, ya que dicho apartado venía introducido dentro de un contenido más amplio dentro de otros acuerdos que se aprobaban, aspecto que debería haberse omitido de la parte dispositiva y que se pasó por alto.

- BILDUko zinegotzi Joana Guerrak galdetu du ea, alkatearen eskumena izanik, honek bandoa egiteko asmorik daukan.

- Por la Concejala de BILDU, Joana Guerra, se pregunta si en este caso siendo competencia del Alcalde, si tiene intención de hacerlo.

- Alkateak erantzun dio une honetan ez duela gogoratzen bere taldeak zer bozkatu zuen eta horren arabera erantzungo liokeela.

- Por el Alcalde se responde que en este momento no recuerda que votó su grupo, en ese caso le respondería.

NIF: P-4801400-E

**2.- 2014KO MARTXOKO ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Udalbatza 2014ko martxoko alkatetzaren dekretuen jakinaren gainean geratu da.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA DEL MES DE MARZO DE 2014.**

El Pleno se da por enterado de los Decretos de Alcaldía del mes de marzo de 2014.

**3.- 2014KO MARTXOAREN 10EKO eta 24KO GOBERNU BATZORDEAREN AKTEN BERRI EMATEA.**

Udalbatza 2014ko martxoaren 10eko eta 24ko Tokiko Gobernu Batzordearen akten jakitun geratu da.

**3.- DAR CUENTA DE LAS ACTAS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DE 10 Y 24 DE MARZO DE 2014.**

El Pleno se da por enterado de las actas de las sesiones de la Junta de Gobierno Local de 10 y 24 de marzo de 2014.

**4.- 2013KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEN DUEN ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Arrigorriagako Udalbatzak honakoa erabaki du:

2014ko martxoaren 31ko alkatearen dekretua ezagutu duela, 2013ko ekitaldiari dagokion Arrigorriagako Udalaren aurrekontuaren likidazioa onartzeari dagokiona.

**4.- DAR CUENTA DEL DECRETO DE LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2013.**

El Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga, acuerda:

Quedar enterado del Decreto de Alcaldía de fecha 31 de marzo de 2014, de aprobación de la Liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento de Arrigorriaga correspondiente al ejercicio 2013.


Urgoiti pasealekua 57 · 48480 Arrigorriaga · T. 944 020 200 · F. 944 020 209 · www.arrigorriaga.net

**5.- AUZITEGI NAGUSIAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO SALAREN 2014/03/20KO EPAIAREN BERRI EMATEA, EAEko JANen 1090/2009 EPAIAREN AURKA ARRIGORRIAGAKO UDALAK AURKEZTUTAKO 4157/2011 KASAZIO ERREKURTSOAN, ARRIGORRIAGAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 9. ALDAKETARI BURUZKOA BENTAKOERREKA ESPARRUAN.**

Eguneko aztergai honetara helduta, puntu honetan abstenitu behar duenez, alkateak udalbatza aretotik atera da. Bere ordez une horretan Begoña Estivaliz Zarraga jarduneko alkatea da osoko bilkuraren burua, 1. alkateordea denez berari dagokio eta.

Arrigorriagako osoko bilkurak honako epai honen jakitun geratu dela onartu du: Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien aretoak, 4157/2011 kasazio-errekurtsoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2011ko ekainaren 2ko administrazioarekiko auzien aretoaren 2. atalaren epaiaren kontra jarria 1090/2009 errekurtsoan, honakoa epaia eman du 2014ko martxoaren 20an:

*1.- Ezin da onartu ARRIGORRIAGAKO UDALAK jarritako kasazio-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien aretoaren 2. atalaren epaiaren kontra (administrazioarekiko auzien 1090/2009 errekurtsoa).*

*2.- Onargarria da EROSKI, S. COOPERATIVA etxearen ordezkaritzan jarritako kasazio-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2011ko ekainaren 2ko administrazioarekiko auzien aretoaren 2. atalaren epaiaren kontra (administrazioarekiko auzien 1090/2009 errekurtsoa), indarrik eta ondorerik gabe geratuko dena, ez baitu ezer adierazten alderdi kodemandatuak prozesuan planteatutako onartezintasun-kausari buruz eta ez baitu ebazten funtsezko eztabaidan piztutako gaietako bat.*

*3.- Eroski S. Cooperativa etxearen ordezkaritzak planteatutako onartezintasun-kausa baztertuta, baietsi egin dugu JOSÉ LUIS ORUÉ EGUSKIZA jaunak jarritako administrazioarekiko auzien errekurtsoa, eta, ondorioz, indargabetu egin da Arrigorriagako Udalaren 2009ko maiatzaren 22ko*

**5.- DAR CUENTA DE LA SENTENCIA DE 20/03/2014 DE LA SALA DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO DEL TRIBUNAL SUPREMO EN RECURSO CASACIÓN 4157/2011 INTERPUESTO POR EL AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA CONTRA LA SENTENCIA 1090/2009 DEL TSJ DEL PAIS VASCO, RELATIVA A LA MODIFICACIÓN Nº. 9 DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE ARRIGORRIAGA EN EL ÁMBITO DE BENTAKOERREKA.**

Llegado a este punto del orden del día, y antes del comienzo del mismo, con motivo de su abstención en el presente punto, por parte del Alcalde se abandona el salón de plenos. Presidiendo por tanto la sesión plenaria en este momento Begoña Estivaliz Zarraga, como Alcaldesa en funciones, al corresponderle como 1ª. Teniente de Alcalde.

El Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga, acuerda quedar enterado de la Sentencia de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Supremo de fecha 20 de marzo de 2014, en recurso de casación 4157/2011 interpuesto por el Ayuntamiento de Arrigorriaga contra la Sentencia 1090/2009 del TSJ del País Vasco, relativa a la aprobación definitiva de la Modificación puntual Nº. 9 de las Normas Subsidiarias de Arrigorriaga en el ámbito de Bentakoerreka, cuyo fallo es el siguiente:

*"1.- No ha lugar al recurso de casación interpuesto por el AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA contra la sentencia de la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 2 de junio de 2011 (recurso contencioso-administrativo 1090/2009)*

*2.- Ha lugar al recurso de casación interpuesto en representación de EROSKI, S. COOPERATIVA contra la citada sentencia de la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de País Vasco de 2 de junio de 2011 (recurso contencioso-administrativo 1090/2009), que queda ahora queda anulada y sin efecto en cuanto no se pronuncia sobre la causa de inadmisibilidad que había sido planteada en el proceso por la parte codemandada ni resuelve sobre una de las cuestiones suscitadas en el debate de fondo.*

*3.- Rechazando la causa de inadmisibilidad planteada por la representación de Eroski S. Cooperativa, estimamos el recurso contencioso-administrativo interpuesto por D. JOSE LUIS ORÚE EGUSKIZA, y, en consecuencia, declaramos nulo el acuerdo del Ayuntamiento de Arrigorriaga de 22 de mayo*

NIF: P-4801400-E

*akordioa, behin betiko onartzen duena Bentako-Erreka Guneko Plangintzako Arau Subsidiarioen 9. Aldaketa Zehatza (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 114. zenbakiduna, 2009ko ekainaren 18koa). Era berean, indargabetu egin da akordio horretan onartutako plangintza-aldaketa.*

*de 2009 por el que se aprueba definitivamente la Modificación Puntual nº 9 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, en el Área de Bentako-Erreka (Boletín Oficial de Bizkaia nº 144, de 18 de junio de 2009), declarando asimismo nula la modificación de planeamiento aprobada en dicho acuerdo.*

*4. Ez ditugu egozten Eroski S. Cooperativak jarritako kasazio-errekurtsoaren ondoriozko kostuak, ez eta instantzia-prozesuan sortutako kostuak ere. Arrigorriagako Udalari udal horrek jarritako kasazio-errekurtsoaren ondoriozko kostuak egotzi zaizkio, epai honen bederatzigarren oinarrian ezarritako mugarekin.*

*4.- No hacemos imposición de las costas derivadas del recurso de casación interpuesto por Eroski S. Cooperativa, ni de las causadas en el proceso de instancia. Se imponen al Ayuntamiento de Arrigorriaga las costas derivadas del recurso de casación interpuesto por dicho Ayuntamiento, con el límite establecido en el fundamento noveno de esta sentencia.*

*5.- Epaia alderdiei jakinaraziko zaie eta, azalduko zaienez, haren aurka ezingo dute errekurtsorik jarri. Halaber, aretoari jakinaraziko zaio bere garaian orain indargabetutako plangintza-aldaketa argitaratu zuen aldizkari ofizialean argitaratu beharko dela epaia.*

*5.- Notifíquese esta sentencia a las partes, informándoles de que contra ella no cabe recurso alguno, e indíquese a la Sala de instancia de que el fallo habrá que publicarse en el Boletín Oficial en el que se publicó en su día la modificación de planeamiento que ahora se declara nula."*

➢BILDUko zinegotzi Aida Utergak adierazi du hemen denok dakigula zer gertatu den Bentako-Errekan 1990etik eta hori dela eta, epai honen inguruko zerbait irakurriko dutela.

➢Por la Concejala de BILDU, Aida Uterga, se manifiesta que aquí todos sabemos que ha sucedido en Bentako-Erreka desde el año 1990, y por ello leerán un texto acerca de esta sentencia.

➢BILDUko zinegotzi Joana Guerrak bere taldearen izenean honako Alberdi hauek azpimarratu nahi ditu jarraian datorren idazkia irakurriz:
*Orueren aldeko epaiaren kontra, zeinaren bidez 2009ko maiatzean Udalak adostutako akordioa (bertan behin betiko onartzen zen Bentakoerreka guneko Plangintzarako Arau Subsidiarioen 9. aldaketa puntuala) eta akordio horretan onartutako plangintzarako aldaketa baliogabetzen ziren, Arrigorriagako Udalak eta Eroskik jarritako kasazio-errekurtsoari dagokion Auzitegi Gorenaren Epaiaren aurrean, EHBILDU udal-taldeak honako hau adierazi nahi du:*

*Udal honek, beste behin ere, borroka legala galdu duela auzitegietan, Bentakoerreka gaiari buruz auzitan jardun duen aurrekoetan gertatu den legez. Gai hori aurreko mendeko 90eko hamarkadatik herrestaka daraman auzia da, eta, oraingoan, aipatutako prozedura sostengatzeko argudiorik gabe errekurritzen duela dioen epaitza jaso du.*
*Horregatik guztiagatik, Udala behartuta dago (Udala bakarrik, Eroski ez) epaiketen kostuak ordaintzera (1.500 euro). Ondorioz, gure buruari galdetzen diogu nolako lege-aholkularitza daukan eta izan duen Udalbatza honek eta aurrekoek, kasualitatez guztiak EAJren eskuan, hain emaitza negargarriak*

➢Por la Concejala de BILDU, Joana Guerra, se señalan, en nombre de su grupo, los siguientes aspectos, mediante la lectura del siguiente escrito:
*Ante la Sentencia del Tribunal Supremo sobre el Recurso de Casación interpuesto por el Ayuntamiento de Arrigorriaga y Eroski contra la Sentencia a favor de Orue en la que se declara nulo el acuerdo del Ayuntamiento de mayo de 2009 por el que se aprobaba definitivamente la modificación puntual nº 9 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento en el área de Bentakoerreka, declarando asimismo nula la modificación de planeamiento aprobada en dicho acuerdo, el Grupo Municipal de EHBILDU de este Ayuntamiento expresa lo siguiente:*
*Que una vez más este Ayuntamiento pierde la batalla legal ante los tribunales, como así ha sido las anteriores ocasiones en las que ha litigado sobre el tema Bentakoerreka, que ya se lleva arrastrando desde los años 90 del anterior siglo, y lo hace en este caso fallando que se recurre sin argumentos que sostengan dicho procedimiento.*
*Por todo ello se obliga al Ayuntamiento, solo al Ayuntamiento no a Eroski, a pagar costas por los juicios por una cantidad de 1.500 euros. Por todo ello, nos preguntamos qué tipo de asesoramiento técnico legal tiene y ha tenido esta Corporación y las anteriores, casualmente todas ellas en manos*

Arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

*izateko; edota, are gehiago, nora eraman nahi gaituen EAJk kudeaketa ezin txarrago honekin. Kudeaketa horrek sei milioi euro baino gehiago eskotean ordaindu behar izatea ekarri digu herritarroi, eta auzitegien aurrean jasandako porrot berri honek, gutxienez, gastu gehiago dakarzkigu auzietan, eta ez dakigu beste ondoriorik izan dezakeen, Eroskik erreklamatzeko aukera baitu.*

*Arrigorriagako EHBILDUk orain dela bi urte kritikatu eta salatu zuen Asier Albizua egungo alkatea 2009ko maiatzaren 22ko osoko bilkuran, orain Madrilek baliogabetu duen aldaketa onartu zuen horretan, aldeko botoa emateagatik. Legediak debekatu egiten du bozka mota hori, gaian nahasita dauden alderdietako baten parte zarenean, eta Asier Albizua alkatea garai hartan eta orain ere Eroski kooperatibaren parte da, baita ukitutako pertsonetako baten anaia ere.*
*Adierazi nahi genuke azken epai hori Bentakoerreka gunearekin lotutako konturik berriena dela, baina une honetan, EHBILDU udal-taldeak bultzatuta, badagoela Udalean duela urte eta erditik Bentakoerrekako prozesu guztiaren inguruan (90. urtetik hasi eta gaur egunera arte) lan egiten eta aztertzen dagoen ikerketa-batzorde berezia, eta epe motzera zorigaiztoko prozesu horri buruzko konklusioak jakinaraziko dituela.*

*del PNV para obtener tan nefastos resultados, o más bien, adónde nos quiere llevar el PNV con esta gestión tan desastrosa que ya nos ha supuesto hasta ahora el pago a escote entre los vecinos y vecinas de al menos seis millones de euros, y que con este nuevo fracaso ante los tribunales nos trae por lo menos nuevos gastos en pleitos y no sabemos si otras consecuencias por la posibilidad de que Eroski pueda reclamar.*
*EHBILDU en Arrigorriaga hace dos años criticó y denunció al actual Alcalde Asier Albizua por su voto a favor, que en el pleno de 22 de mayo de 2009 en el que se aprobó la modificación que ahora ha sido anulada por Madrid, la legislación prohíbe este tipo de voto cuando se es parte de cualquiera de los que actúan en el tema, y el Alcalde Asier Albizua era parte entonces y sigue siendo ahora de Eroski Cooperativa, y también hermano de uno de los afectados.*
*Queríamos señalar que esta última Sentencia es la parte más reciente del asunto relacionado con el área de Bentakoerreka, pero que en estos momentos a propuesta del grupo municipal de EHBILDU hace año y medio existe en el Ayuntamiento una Comisión Específica de investigación que trabaja y estudia todo el proceso de Bentakoerreka desde el año 90 hasta nuestro días y que a corto plazo dará a la luz las conclusiones de este desastroso proceso.*

NIF: P-4801400-E

➢Begoña Estivaliz jarduneko alkate andreak hitza hartu du zera esateko: 9. aldaketa hau onartzean Eusko Alkartasunak eta Ezker Batuak ere onartu zuten eta berak uste du Eusko Alkartasuna Bilduren barruan dagüela.

➢Por la Alcaldesa en funciones, Begoña Estivaliz, se toma la palabra para matizar, que en la aprobación de esta Modificación nº. 9, la misma se aprobó también por los grupos de Eusko Alkartasuna y Ezker Batua, considerando que Eusko Alkartasuna cree que pertenece a BILDU.

➢BILDUko zinegotzi Aida Utergak erantzun du nolanahi ere EAJk sustatuta, besteek aldeko botoa eman zutela , baina EAJk sustatuta.

➢Por la Concejala de BILDU, Aida Uterga, se responde que en todo caso promovido por el PNV, votado a favor por el resto, pero promovido por el PNV.

➢Begoña Estivaliz jarduneko alkate andreak Eusko Alkartasunaren aldeko botoari esker izan zela azpimarratu nahi du.

➢Por la Alcaldesa en funciones, Begoña Estivaliz, se insiste que con el voto afirmativo de Eusko Alkartasuna.

Ondoren, behin 5. puntua amaituta, alkatea sartu egin da osoko bilkurara eta horren buru izango da.

A continuación, y una vez finalizado el punto 5, el Alcalde se incorpora a la sesión plenaria, volviendo a presidir la misma.

**6.- GALDE-ESKEAK.**

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**6.1. EB-Bko bozeramaile José Luis Méndezek** galdetu du ea Enplegu plana gehiago zehaztu den.

**6.1.- Por el Portavoz de EB-B, José Luis Méndez,** se pregunta si el plan de empleo se ha concretado en algo más.

➢Alkateak erantzun dio ikusi duen bilera hori, ez del

➢Por el Alcalde se responde que en la reunión que ha

aizan daukaten Enplegu planaren inguruan, plan berri baten ingurukoa baizik. Oraingoa ez da Eusko Jaurlaritzarena Bizkaiko Foru Aldundikoa baizik eta eskualderako. Plan berri honi Enplegua Suspertzeko Plana deitu diote. Atzo izan zenb ilera eta planaren aurkezpena autoenpleguan du ardatz. Eskualdeko udalerri guztientzako plana izango da eta bertan udalerri guztiek izango dute prestakuntzarako aukera. Autoenplegu proiektuan, biztanleriaren araberako ehunekoan, 125 herritarrek hartuko dute parte. Arrigorriagari 15 lagun egokituko zaizkio, hilabete batzuetan zehar txanda bitan banatuta. Lehenengo txanda prestakuntza da eta hilabetekoa. Ondoren, negozioaren bideragarritasun proiektua egiteko txandarako bi hilabete izango dira eta hirugarrena abian jartzea da. Planak dirulaguntza du lehen eta bigarren faseetan: 350 euro hilean planean dagoen herritar bakoitzeko eta negozioa sortuko dutenentzat itzuli beharrik gabeko 5.000 euro, beti ere negozioa gutxienez urte betez zabalik izanik. Plan berria da, hortaz. Epeak oraintxe ari dira ixten. Atzoko aurkezpenaren ostean teknikariak geratu ziren aztertzeko eta, ziur asko bandoaren, webaren eta abarren bidez iragarriko da, segur aski datorren astean, datak ekainean hasteko estuegiak ziren eta.

visto, hay que manifestar que la misma no es del Plan de Empleo que tenían, es de un nuevo Plan que en este caso no es del Gobierno Vasco sino que es de la Diputación Foral de Bizkaia para la comarca, al cual le han llamado Plan de Reactivación. Ayer fué la reunión, la presentación del plan que está muy centrada, muy enfocada en el autoempleo, va a ser un plan comarcal para todos los municipios de la comarca, en el que en el total de los municipios van a tener la oportunidad de formación cara a terminar en un proyecto de autoempleo de 125 personas que repartidas porcentualmente por población. A Arrigorriaga le van a corresponder 15 personas, divididas en 2 tandas distintas durante un periodo de varios meses. La primera fase es de formación y dura un mes, luego hay dos meses para la fase de elaboración del proyecto de viabilidad del negocio y la tercera es la puesta en marcha. El plan tiene apoyo económico en la primera y segunda fase, 350 euros al mes para cada persona que esté en el plan y para aquellos que creen el negocio 5.000 euros a fondo perdido, siempre que el negocio se mantenga por lo menos durante un año abierto. Por lo que es un plan nuevo. Los plazos están cerrándolos ahora, después de la presentación de ayer se quedaron los técnicos para verlo, y seguramente se anunciará por bando, web y demás, seguramente la semana que viene, porque las fechas eran muy apresuradas para empezar en junio.

Bestalde, planei dagokienez, Dekretua, oker ez badabil, Aste Santuan edo Pazko-astean heldu zen. Errataren bat zeukan, eta hitz egin dute Departamentuarekin eta zuzenduta dago. Eta, zalantzarik gabe, ezin daitezke bete hasierako baldintzetan eskatzen ziren kontratazioak; gogoratzen baduzue, hasierakoak 2014ko irailerako amaituta egon behar baitziren. Gauzak horrela, hautaketekin, kontratazioekin eta besterekin ia epemugara iritsiko ginateke; beraz, aldatu egin dira, eta uste du epe berria Dekretua argitaratu zen egunetik 2015eko maiatzera arte dela. Gainera, diruaren kobrantza ere ez dute osorik aurten egingo, baizik eta 2014an % 80 ordainduko dute, eta gainerako % 20a 2015ean. Hortaz, astelehen honetan bertan enplegu-zinegotziak, teknikoak eta Zeuxa enpresak bilera egingo dute, zer egin daitekeen ikusteko; segur aski eskualdeko gainontzekoak asteazkenerako deituko dituzte, guztien artean ezarri behar baitira martxan jartzeko epeak.

Por otro lado, respecto a los otros planes, llegó el Decreto si no se equivoca la semana de Semana Santa o la de Pascua, el cual tenía alguna errata que ya han estado hablando con el Departamento y ya está solucionada. Y, obviamente, en las condiciones iniciales no se podían cumplir ya las contrataciones que se pedían, porque si os acordais las iniciales deberían estar terminadas para septiembre del 2014. Por lo que ahora solo entre selección, contratación y demás, casi se ha llegado a las fechas, por lo que entonces se han modificado y cree que el nuevo plazo es desde el día de publicación del Decreto hasta mayo de 2015, e incluso el cobro del dinero tampoco lo pagan entero este año sino que pagan el 80% en el 2014 y el 20% en el 2015. Con lo cual para este mismo lunes se ha concretado una reunión entre la Concejala de Empleo, la Técnico y la empresa Zeuxa, para ver que se puede hacer y seguramente al resto de la comarca le convocarán para el miércoles ya que entre todos hay que poner los plazos para ponerlo en marcha.

➢ EB-Bko bozeramaile Jose Luis Mendezek galdetu du ba ote dakien nolakoa izango den hautaketa-prozesua, nori zuzenduta dagoen eta ea zerbait azal dezakeen.

➢ Por el Portavoz de EB-B, José Luis Méndez, se pregunta si se sabe como va a ser la selección o a quien va dirigida y si puede contar algo.

NIF: P-4801400-E

➢Alkateak erantzun du Plana autoenplegura bideratuta dagoela, ez dela prestakuntza soila, baizik eta xedea jendeak negozioak ezartzea dela. Era berean, azaldu du aurretiazko hautaketa bando bidez eta webgunean iragarriko dela, baldintzak betetzen dituen pertsona orok izena eman dezan. Hasieran, Udalean bertan egingo den hautaketa bat egongo da; ondoren, hautaketa horretatik ateratako zerrenda DEMAra bidaliko da (eskualde honetan zein beste zenbait eskualdetan plan guztia kudeatzen duen enpresa). Hortaz, Udalak bidaliko duen zerrendan oinarrituta, hautaketa han egingo dute. Batez ere, jende ekintzailea izatea eskatuko da; izan ere, azken asmoa negozio bat jar dezatela da. Dena dela, azalpen gehiago emateko, Zinegotziei posta elektronikoz bidaliko die atzo jaso zuten aurkezpena, San Migueleko Taberna Zaharran egindakoa. Ikastaroek hirurogei pertsona ingururentzako lokala behar dute, ekipamendu eta guzti. Horrenbestez, Aldundiaren proposamena da, lehendabiziko txandan ikastaro guztiak presentzialak direnez, Basaurin egin daitezela, San Miguel aldapako Taberna Zaharran; ondoren, bigarren txandarako, ikusiko dute norbaitek ba ote duen egokia den lokalen bat. Hortaz, lokalen bat badute, eskainiko dute; eta uste du berriro izango dela Basaurin edo Galdakaon.

➢Por el Alcalde se responde que el Plan va dirigido a hacer autoempleo, que no es formación sin más, sino dirigido a que la gente instale un negocio, así mismo, se alude a que la selección previa se anunciará en bandos, web, para todo aquel que se quiera apuntar cumpliendo los requisitos. Hay una selección inicial de los candidatos que se apunten que se hará en el Ayuntamiento, luego esa lista se manda a DEMA, que es la empresa que gestiona todo el plan a nivel comarcal y en otras comarcas también que también se ha puesto en marcha. Posteriormente de las personas que se manden desde el Ayuntamiento se seleccionarán allí, pidiéndose sobretodo que sea perfil de gente emprendedora porque efectivamente es para acabar montando un negocio. Pero para explicar un poco más, a ver si manda por correo a los Concejales la presentación que les mandaron ayer, realizada en la taberna zaharra de San Miguel. Las clases necesitan un local para sesenta y pico personas, equipado. Entonces la propuesta de la Diputación en la primera tanda es que todas las clases al ser presenciales se hagan en Basauri, en la Taberna Zaharra en la cuesta de San Miguel, y que luego para la segunda tanda ver si alguien tiene local que cuente con las condiciones y demás. Por lo que si tienen algún local lo ofertaran y supone que será otra vez en Basauri o en Galdakao.

NIF: P-4801400-E

**6.2.- EB-Bko bozeramaile Jose Luis Mendezek** galdetu du ea azterketa tekniko-energetiko bat egiteko enpresa bat kontratatzeak, gastua optimizatzeko asmoz, ez ote duen talka egiten lizitatzeke dagoen energia elektrikoaren hornidura-kontratuarekin.

**6.2.- Por el Portavoz de EB-B, José Luis Méndez,** se pregunta con relación a la contratación de un empresa para realizar un estudio técnico energético, con la idea de optimizar el gasto, si esta contratación no se solapa con la licitación del contrato de suministro de energía eléctrica que está pendiente.

➢Alkateak erantzun du osagarria dela. Egiten ari direna da instalakuntzen eta mantentze-lanen hobekuntza, eta hori fakturazioaren hobekuntza da. Bestea Udaltaldek hartu duen enpresa bat da. Egingo dutena da potentzia-gaietarako eurek dituzten fakturak aztertu eta benetako beharrizanetara egokitu. Horrek, ustez, udalerri bakoitzari dirua aurreztea ekarriko dio. Baina hori guztia fakturen azterketara mugatuko da soilik, kontratatutako potentzia berrikustearen bidez.

➢Por el Alcalde se responde que ello es una cosa complementaria. Porque lo que están haciendo es la mejora de las instalaciones, del mantenimiento, y eso es una mejora de la facturación. Esto es una empresa cogida por Udaltalde. Lo que van a hacer es revisar las facturas que tienen ellos para temas de potencia y adecuarlas a las necesidades reales, saliendo en teoría un ahorro para cada uno de los municipios, pero ello se queda, sin más, en la revisión de las facturas, mediante la revisión de la potencia contratada.

➢EB-Bko bozeramaile Jose Luis Mendezek azaldu du zenbait alegazio aurkeztu zaizkiola energia-planari.

➢Por José Luis Méndez se alude a que se han presentado algunas alegaciones al plan energético.

➢Alkateak erantzun du hori beste gauza bat dela, ez baita azaltzen eurek daukaten proposamenean, aparteko gauza bat delako. Energia-planeko kontratua saiatuko da Udaltalderen kontratuak dagoeneko murriztu duen fakturaren gainean jarduten, baldin eta gehiago murrizteko aukerak aurkitzen badituzte.

➢El Alcalde responde que eso es otra cosa, ya que eso no estaba en la propuesta que tienen, ya que es aparte. El contrato del plan energético se limitará a actuar sobre una factura ya reducida por el contrato del Udaltalde, si es que encuentran posibilidades de reducción.


Urgoiti pasealekua 57 · 48480 Arrigorriaga · T. 944 020 200 · F. 944 020 209 · www.arrigorriaga.net

➢BILDUko zinegotzi Aida Utergak azaldu du fakturazioan lortutako aurrezpenaren onura guztia enpresarentzat izango litzatekeela.

➢Por la Concejala de BILDU, Aida Uterga se alude a que el beneficio del ahorro de la facturación sería todo para la empresa.

➢Alkateak ezetz erantzun du. Pleguak aztertzen badira, bertan ikus daiteke murrizketa nahitaezkoa dela, eta horri oinarrizko lerro elektrikoa deritzo. Hortaz, ezin daiteke igo oinarrizko lerro horretatik gora, eta zehaztuta dago hortik beherako hobekuntzaren % 90 Udalarentzat dela eta gainerako % 10a enpresarentzat. Beherapenezko hobekuntza horretatik enpresari % 10 dagokio eta Udalari % 90. Berriro dio kasu honetan desberdina dela. Ez daki Udaltaldekoan ehunekorik eramaten ote duen, ez du gogoratzen; baina gauza bat da lanen hasieran daramana, eta beste gauza bat da, fakturaren zenbatekoa murriztea lortuz gero, agian kopuru hori enpresarentzako diru-sarrera izatea. Horregatik, Udaltek kontratatzen du Udalak kontratatzen duen era berean, plegu batzuk egiten ditu eta lizitazioa, baina ez du gogoratzen prezioa itxia den edota prezio finko bat duen eta horri gehitu behar zaion udalerrietako bakoitzean lortutako hobekuntzaren ehuneko jakin bat, baina informazio hori Udaltalderen webgunean egongo da.

➢Por el Alcalde se responde que no. Los pliegos si se observan tienen una reducción obligatoria que es lo que se llama la línea base eléctrica. Entonces desde esa línea base no se puede subir y de ahí para abajo ya se especifica que el 90% de esa mejora es para el Ayuntamiento y el 10% para la empresa. De esas mejoras de bajada la empresa se lleva el 10% y el 90% el Ayuntamiento. Reitera que en este caso es distinto, que en el del Udaltalde no sabe si se lleva un porcentaje, no lo recuerda, pero una cosa es lo que lleve de inicio en el trabajo en sí y otra cosa es que luego si se consigue reducir la factura en una cantidad, igual esa cantidad es ingreso de la empresa. Es por ello que el Udaltalde contrata como el Ayuntamiento, hace unos pliegos y una licitación, no recordando si concretamente es un precio fijado o es un precio fijo por el trabajo, más un porcentaje de la mejora conseguida en cada uno de los municipios, pero dicha información estará en la web del Udaltalde.

NIF: P-4801400-E

**6.3.- PSE-EE (PSOE)ko bozeramaile Maite Barahonak** honako eskari hau egin du: adierazi du zenbait berri heldu zaizkiela Beteluri aurrean beste zabortegi bat sortzen ari direla esanez (plastikoekin, gurpilekin eta abarrekin), Ur Partzuergoaren aurrez aurre. Ez daki nola dagoen zabortegien egoera, aste honetan bertan eman baitiote horren berri, argazki eta guzti. Ez daki nola ari diren kudeatzen zabortegien gaia, guneak gutxi gorabehera garbi ote dauden edota zenbat denbora behar den hustera joateko, behin haien berri izanda.

**6.3.- Por el Portavoz de PSE-EE (PSOE), Maite Barahona**, se realiza el siguiente ruego, se alude a que les han llegado noticias de que se vuelve a generar otro vertedero enfrente de Venta Alta, con plásticos, ruedas y demás, enfrente de lo que es el Consorcio de Aguas, no sabe como está el asunto de vertederos, pues se lo han dicho esta misma semana con fotos incluidas. Desconoce como se está gestionando el asunto de los vertederos, si están más o menos los puntos limpios o cuanto se tarda en ir a vaciarlos una vez que se conocen.

➢Alkateak erantzun du hori isurketaren tamainaren araberakoa izaten dela. Horren arabera, garbitzaileen brigadak berak edo Inbisak batzen du.

➢Por el Alcalde se responde que depende del volumen del vertido, en función del mismo lo recoge la propia brigada o Inbisa.

**6.4.- PPko bozeramaile Jesus Sevillak** azaldu du zenbait herritarrek esan diotela ea posible den Udaletik gertu dauden edukiontziak kontrako aldean kokatzea, gurutzatzerakoan oinezkoek ikusi ahal izateko, bestela kale erdira arte ikusmenik gabe igaro behar baita.

**6.4.- Por el Portavoz de PP, Jesús Sevilla,** se alude a que le comunican algunos vecinos que los contenedores que están cerca del Ayuntamiento si es posible que se coloquen al lado contrario, para que lo vean los peatones al cruzar, porque si no, hay que pasar hasta mitad de la calle sin tener visión.

➢Alkateak erantzun du beste aldean jarrita daudela bestela etxebizitzetako balkoien azpian geratuko liratekeelako; hortaz, eraikinik ez dagoen lekuan jarrita daudela, usainen arazoarengatik.

➢Por el Alcalde se responde que los ponen al otro lado porque si no, quedarían justo debajo de los balcones de las viviendas, por lo que están puestos donde no hay edificios por el tema de los olores.


Urgoiti pasealekua 57 · 48480 Arrigorriaga · T. 944 020 200 · F. 944 020 209 · www.arrigorriaga.net

**6.5.- BILDUko zinegotzi Joana Guerrak** azaldu du orain dela zenbait aste Udal Araudi Organikoko proposamen bat erregistratu zutela, eta alderdi politiko guztiei aurkeztu zietela eta adostasun batera iristeko borondaterik ba ote zuten galdetu zietela; pentsatzen jarraitzen baitute ezaugarri horiek dituen araudi batek herritarrek Udalarekiko duten partehartzea eta irisgarritasuna hobetuko lukeela, ateak irekita.

➢PSE-EE (PSOE)ko bozeramaile Maite Barahonak azaldu du informazio-batzordean jadanik adierazi zutela adostasunen batera iristen saiatzeko borondatea, ez berez adostasunetara iristea. Horrenbestez, lehendabiziko batzar bat izateko data jartzeaz hitz egin zuten, baina ez zen ezer zehaztu. Hortaz, zain daude ea norbaitek dataren bat zehazten duen, horretara egokitu eta joan ahal izateko; horixe izanik euren asmoa: adostasunetara iristen saiatzea.

➢BILDUko zinegotzi Joana Guerrak azaldu du osoko bilkuraren ostean data posibleez hitz egingo dutela eta posta elektronikoz komunikatuko direla.

**6.6.- PPko bozeramaile Jesus Sevillak** azaldu du Udaltzaingoan, dirudienez, haserre daudela eta badela mugimenduren bat. Uste du denek dutela 15 udaltzainek sinatutako 9 orriko idazki baten kopia, udaltzain bati eta haren ordutegiari buruzkoa, eta apur bat irakurriko duela dio. Egingo duen galdera honako hau da: nahi du Udaltzainei azaltzea zergatik diskriminatzen den pertsona bat adostu gabeko ordutegi batekin eta zergatik estutzen den bestea legez kanpoko ordutegi batekin, nahierara. Horrenbeste hitz egiten bada gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaz, badirudi beraiek hori betetzea nahi dutela gai horretan. Gainontzeko udaltzainek 8 orduz egiten baitute lan eta berak adina kobratzen dute.

➢Alkateak erantzun du ez duela irakurri erakusten duen hori eta ez dakiela egingo duen. Aldiz, bai esan nahi dio ez dela inor ere diskriminatzen, inork ere ez duela legez kanpoko ordutegirik, eta esan duen hori hor baldin badakar, esan duen moduan baldin badakar, ez dela horrela. Ez du galdera oso ondo ulertzen, uste baitu aurreko egunean azaldu zuela informazio-batzordean. Ez daki zigarroaren tartea egokitu bazen eta ez zeuden guztiak, baina aurreko egunean azaldu zuen informazio-batzordean, ez badu gaizki gogoratzen. Informazio-batzordean Udaltzaingoaren pare bat kontu landu zituzten; hortaz, azalpena behar bezala emanda dago, eta legezkotasunaz edo legezkotasun ezaz zalantzarik baldin badu, hor dago idazkari jauna erantzuteko. 15 udaltzain horiek euren nagusiari

**6.5.- Por la Concejal de BILDU, Joana Guerra,** se alude a que hace unas semanas registraron una propuesta de Reglamento Orgánico Municipal que presentaron a todos los grupos políticos y preguntaron sobre la voluntad de llegar a un acuerdo sobre el tema, porque siguen creyendo que un reglamento con esas características les llevaría a mejorar la participación y accesibilidad de la ciudadanía con el Ayuntamiento, abriendo puertas.

➢Por la Portavoz del PSE-EE (PSOE) Maite Barahona, se alude a que en la Comisión Informativa ya expresaron su voluntad de intentar llegar a acuerdos, no llegar a acuerdos en sí. Por lo que se habló de poner fecha para una primera reunión, pero no se concretó nada. Por lo que están a la espera de que alguien dé una fecha y tratar de ajustarse para asistir, siendo esa su voluntad: el intentar llegar a acuerdos.

➢Por la Concejala de BILDU Joana Guerra se alude que después del pleno hablarían sobre posibles fechas y se comunicarían mediante email.

**6.6.- Por el Portavoz de PP, Jesús Sevilla,** se alude a que parece ser que hay un poco de malestar y movimiento con la Policía Local. Cree que todo el mundo tiene copia de un escrito de 9 hojas que va a leer un poco, firmado por 15 policías de este Ayuntamiento, sobre una Agente y su horario. La pregunta que va a hacer es la siguiente, quiere que se le explique a los Agentes por qué se discrimina a una persona con un horario no acordado y a la otra se le apremia con un horario ilegal, a la carta, si tanto se está hablando de la igualdad del hombre y la mujer, pues parece ser que ellos quieren que eso se cumpla este aspecto. Porque los demás Agentes trabajan 8 horas y cobran lo mismo que ella.

➢Por el Alcalde se responde que no ha leído eso que enseña, que no sabe si lo va a leer o no. Lo que sí le va a decir, es que no se discrimina absolutamente a nadie, no hay ningún horario ilegal absolutamente de ninguno, y eso que se ha dicho, si es que lo pone ahí, si es que lo pone como ha dicho, no es así. Entonces, le invitaría a que antes de hacerse eco de algo, lo preguntase directamente. No entiende muy bien la pregunta, porque cree que lo explicó el otro día en la Comisión Informativa. No sabe si igual tocaba la hora del cigarro y no estaban todos, pero lo contó el otro día en la Comisión Informativa, si no recuerda mal. En la Comisión Informativa trataron un par de asuntos de la Policía, con lo cual la explicación cree que está más que dada y si tiene alguna duda sobre la legalidad o ilegalidad ahí está

NIF: P-4801400-E

Arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

galdetu ahal izan diote, baina ez diote galdetu gaurdaino.

- BILDUko zinegotzi Joana Guerrak azaldu du gai horri eta esku artean duten dokumentuari buruz, datu pertsonalak dituena, hitz egiten hasi aurretik, ohartarazi nahi dutela ez zaiela iruditzen osoko bilkurán eztabaidatzeko modukoa denik. Barneko arazo bat da, beste leku batzuetan jorratu beharrekoa, baina ez hemen datu pertsonalak agertuz.

- Alkateak adierazi du ados dagoela gai hori ez dela hemen jorratzeko modukoa, eta ez dela datu pertsonalak eman beharreko lekua, baina aurretik esan duen legez, bere esku dago.

- PSE-EE (PSOE)ko bozeramaile Maite Barahonak azaldu du gogoratu nahi duela bera izan zela dagokion informazio-batzordean Udaltzaingoko beste agente bati eragiten zion gai bati buruz galdetu zuena. Bertan, gerora informazio gehiago izan duten gaiaz ere hitz egin zuten, PPko bozeramaileak aipatzen duen 8 orriko agiria heldu baitzaie. Baina hurrengo batzordera eramatea pentsatzen zuten, galdera gehiago egitera bultzatzen dituzten datu gehiago daudelako. Ez zuten, inondik inora, osoko bilkuran ezer aipatzeko asmorik, eta are gutxiago izen-abizenez hitz egiteko. Oso gai korapilotsua dela iruditzen zaie, baina bai gustatuko litzaieke gehiago jakiten jarraitzea, zein noranzkotan doan erabakia, ea beste desberdinen bat hartuko ote den edota zer gertatuko den. Hala ere, hurrengo informazio-batzordean aipatuko du.

- Alkateak adierazi du lehengo egunean esan zutela zein norabidetan doazen eta gobernu taldeak ez du aldaketarik ikusi aurreko batzordetik hona.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez zegoela, bilkura amaitutzat jo zen hogei orduak eta hamar minutu zirenean, eta nik idazkariak, akta hau jaso dut eta horren guztiaren fede ematen dut.

el Sr. Secretario para responder. Los 15 agentes podrían haberle preguntado a su jefe, al cual, a día de hoy, todavía no le han preguntado.

- Por la Concejala de BILDU Joana Guerra, se alude a que sobre esta cuestión, desean observar y sobre el documento que tiene entre manos y que sabe que tiene datos personales, es que antes de que se hable no les parece que es un tema para debatir en el pleno, es algo interno que se tiene que hablar en otros sitios, pero no aquí dando datos personales.

- Por el Alcalde, se señala que comparte con ella que no es un tema para hablar aquí, ni cree que es un sitio donde haya que dar datos personales, pero como decía está en su mano.

- Por la Portavoz del PSE-EE (PSOE), Maite Barahona, se alude a que quiere recordar que en la Comisión Informativa correspondiente fue ella quien hizo la pregunta a propósito de otro asunto relacionado con algo que afectaba a otro Agente de Policía Local y también se habló de lo que luego han tenido más información, pues les ha llegado del documento este de las 8 hojas que dice el Portavoz del PP que tiene. Pero efectivamente lo pensaban trasladar a la siguiente Comisión, porque hay más datos que sí les llaman a hacer más preguntas, no tenían previsto en ningún caso comentar nada en el Pleno y menos hablar con nombres y apellidos, entienden que es un tema delicado pero que sí les gustaría seguir sabiendo más y en qué dirección va la resolución y si se toma alguna diferente o qué va a ocurrir. No obstante lo comentará en la próxima comisión informativa.

- Por el Alcalde se alude a que el otro día ya dijo en qué dirección van y desde el equipo de gobierno no han visto un cambio de la Comisión anterior al día de hoy.

Y no habiendo más asuntos de que tratar, se dio por terminado el acto siendo las veinte horas y diez minutos, extendiéndose por mí el Secretario la presente acta, de todo lo cuál, doy fe.

Alkatea / El Alcalde

Arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

Asier Albizua Manrique

Idazkaria / El Secretario

Álvaro Llorente Crespo

NIF: P-4801400-E



Urgoiti pasealekua 57 · 48480 Arrigorriaga · T. 944 020 200 · F. 944 020 209 · www.arrigorriaga.net